# Familia, berri
# ONAREN ERAMALE



## FAMILIA SANTUAREN JARDUNALDIA

2023ko abenduaren 31

# OTOITZA

Jainko Aita, zure nahiarekiko esaneko izateko eta fede bizitzaren eredu perfektua eman diguzu Familia Santuarengan. Eskerrak ematen dizkizugu gure familiagatik eta eskatzen dizugu eman diezaguzula sendotasuna maitasunean, eskuzabaltasunean eta elkarbizitzaren alaitasunean irauteko.

Jesus Jauna, Nazareteko etxean hazi zinena, emaguzu gure arbasoengandik jaso genuen fedea zabaltzeko dugun egitekoa betetzeko laguntza. Zabaldu gure seme-alaben bihotzak, bataioan jaso zuten fedearen hazia loratu dadin. Indartu gure gazteen fedea eta lagun iezaiezu beraien bokazioa aurkitzen.

Espiritu Santua, handitu maitasuna eta zaindu leialtasuna ezkon-bikote guztietan; gida itzazu zailtasunak dituztenak, gainditurik maitasunean bat eginda iraun dezaten.

Familia Santuaren bidez eskatzen dizugu hau guztia, beraiek baitira familia bizitzaren eredu gorena. Amen.

CONFERENCIA EPISCOPAL ESPAÑOLA

COMISIÓN EPISCOPAL PARA LOS LAICOS, FAMILIA Y VIDA
Subcomisión Episcopal para la Familia y Defensa de la Vida

Añastro, 1 · 28033 Madrid
familia@conferenciaepiscopal.es

Imagen: Francis Robles